

Pertsonaia paradigmaticoa dugu Thyl Eulenspiegel, Koldo Izagirrek euskaraturiko *Ulenspiegelen elezaharra* eleberriko protagonista. Itzultzailearen beraren hitzaurre bikainean, ironiaz eta euskaldunoi keinuz beterik, pertsonaiaren errealitate historikoaz, mitikoaz eta bi errealitate horien manipulazio literario eta politikoaz berri interesgarriak aurkituko ditu irakurleak.

Saxoniarra (gaurko Alemania) jaiotzez eta XIV. mendekoa, Flandriara pasatuko zen gero herri ipuinetan-eta, eta haren ibilerak bilduko zituen lehen liburua 1483an argitaratuko zen. Herói pikaro gisa bihurtu zuten mito herri legendek. Pertsonaia mitiko hau hartuko du gero Coster idazle belgikarrak 1867ko eleberririk honentzat. Denboraren tuneletik igaroarazi eta XVI. mendean kokatu zuen XIII. mendeko Eulenspiegel pertsonaia historikoa, XIX.eko ikuspegi nazionalista batekin koloreztatuz haren ibilerak: manipulazio literario liluragarri emankorrari ekin eta XVI. mendeko Herbehereetako, Flandriako eta Waloniako independentziaren aldeko gerretan, Karlos I.a eta Felipe II.a Espainiakoen kontrako haieran, herói nazional bihurtu zuen Costerrek gure protagonista. Nongo herói nazionala? Estatu gisa oraindik jaio berria zen —36 urte baizik ez zuen Belgikak nobela argitaratu zenean— eta nazio izatera heldu gabe gaur egun desegitear ei dagoen nazio proiektu bateko heróia. Guztiz paradigmaticoa, bai horixe, gure Thyl Eulenspiegel pikaro saxoniarra, nazionalismoen sukarraren lilurapenetan Ulenspiegel herói belgikarra bihurturik gure nobelan. Nazionalismoen teoriarientzat bazka ezin kitzikagarriagoa.

Baina are kitzikagarriagoa da *Ulenspiegelen elezaharra* eleberririk gisa. Halako izpiritu erromantikoarekin idatzirik errealismo eta naturalismoaren garaian, "nekez onartuko zukeen [garaiko] nobela modernoak", Izagirrek dioten bezala, Costerren "askatasuna" idazkerari, nobelagintzari, egiturari eta genero nahasketari dagokienez. Hortaz, protagonistari denboraren tuneletik pasatu arazi bezala, holaxe pasatu behar izan du nobelak ilunpe tunel batetik, ia mende oso bat geroago maisulan literariotzat aitorturik suertatzeko. Costerren garaiko nobelak baino modernoagoa egin zait "elezahar" hau, modernia ostearekin ere lotua erranen nuke. Nobelaren egiturari eta lehengaien nahasketari, zeinen askatasun libreaz baliatu zen, hala ipuin xarmantak eta barregarriak nola poema epikoak eta lirikoak josteko, argumentu hari batekin haiei segida jolastia emateko, kale-antzerki giroan bezala gizarteraturiko pertsonaiak asmatzeko eta letren munduko aberri bat sortzeko. Lengoia propioa ere asmatu omen zuen Costerrek, dirudienek berak sorturiko arkaismoen beteak.

Bereziki aipagarria da hizkera-kutsua gureganatzeko Izagirrek harturiko bidea: Lapurdi eta Nafarroa Behereko erduetara jo dute gure gaurko nobelagileek XVI. eta XVII. mendeetan kokaturiko historietan, eredu kultu eta goi mailakoak betiere —Joan Mari Irigoien maisu, *Lur bat haratago* hartan—, eredu horiexek baitira testigantza historiko garaienak eman dizkigutenak eta bat baitatoz landuriko pertsonaia leituekin, euren kronikak idazteko gai ziren haiekin. Arras bertzelakoa dugu Ulenspiegel, herri-kulturari lotua, itxura osoz bertze hizkera mota bat eskatzen duena. Horren bila, bide berri bat ireki dio Koldo Izagirrek euskarazko nobela historikoari, gaurko bazterretara, gehienbat gure mendebaldekoetara, joz, eta zaharkiturik, hiltzear edo hil berri diren hainbat hitz eta erramolde, itxurarik arkaikoenetakoak, berpiztu ditu (are asmatu ere?) efektu egokia lortze aldera.